



ITSASONDOKO  
UDALA



## ITSASONDOKO HAUR ETA FAMILIA TXOKO – ko ARAUTEGI OROKORRA

### ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Haur txokoa, haurrak eta familiak elkarrekin egoteko espazio bat da eta udaletxeko beheko solairuan kokatzen da. Bertan, gurasoekin ez ezik lagunekin egon eta jolasteko aukera ere izango dugu eta horretarako ezinbestekoa izango da guztion artean espazioa ondo zaintzea.

### NORENTZAT

Haur eta Guraso txokoa 0 – 12 urte bitarteko haur eta beraien gurasoei zuzenduriko espazioa da.

### SARBIDEA

Bertara sartu ahal izateko honakoa izan beharko dugu kontuan:

- ⤴ Txartela gurasoen izenean egongo da:
- ⤴ 0 – 8 urte bitarteko haurrek **guraso edota heldu batez lagunduta** sartu beharko dute.
- ⤴ 9 – 12 urte bitartekoak **txartelarekin bakarrik** sartu ahalko dira, betiere jarrera ona izaten badute. Jarrera txarraren aurrean (zalapartaka ibili, liskarrak izan, gauzak jaso gabe utzi, materiala ardura gabe erabili...) arreta adineko edonork dei diezaieke eta udalak neurriak hartu ahal izango ditu.
- ⤴ Sartzen den **guztiak bere txartela pasa behar du irakurgailutik**, hau da, atea itxita egongo da eta erabiltzaile bakoitza bere txartelarekin sartuko da. Ezin da, beste erabiltzaile baten txartelarekin sartu ezta txartela irakurgailutik pasa gabe espazioa erabili.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### **Nola egingo dugu sarbide txartela?**

- ✦ Txartelaren kostua 3 €takoa da.
- ✦ Txartela udalean egin beharko da, aurrez aurreko harreran (astelehenetik ostiralera 8:30 – 14:00).
- ✦ Txartela eskuratzeko eskabide orria bete beharko da eta horretarako nahikoa izango da arduradunaren datuak jartzea (izen-abizenak, DNI zenbakia , posta elektronikoa, telefono zenbakia...).

### **ESPAZIOA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK**

#### **Ordutegia eta erabilera egunak**

- ✦ Astelehenetik igandera 10:00-20:00

#### **Erabilera partekatua**

- ✦ Haur txokoaren erabilpenerako lehentasuna udalak izango du bertan antolatutako ekitaldietan (ipuin kontalariak, tailerrak...).

#### **Erabilera arauak**

- ✦ Materiala eta lagunak errespetatuko ditugu. Oro har, lagunekiko jarrera ona izango dugu.
- ✦ Jostailu bat erabili ondoren eta beste bat hartu aurretik, erabilitakoa jaso. Halaber, jostailuren bat apurtuko balitz, udaletxea sarreran, dagokion ontzian botako dugu.
- ✦ Ezingo da liburutegiaren eta haur txokoaren arteko korridorean korrika ibil.
- ✦ Haur txokoaren barruan dagoen biltegia giltzaz itxita egongo da. Biltegitik ateratako guztia erabili ondoren, berriz ere biltegi barruan jaso eta atea giltzaz itxi beharko da.



## ITSASONDOKO UDALA



- ⌘ Haur bakoitzak bere arduraduna izan beharko du. Adineko edonork izango du ahalmena jarrera txarra erakusten duen haurrari arreta deitzeko, udalean kexa anonimoa sartuz edo haurrari zuzenean esanez.
- ⌘ Espazioak antolaketa propioa izango du eta beraz, gurasoak ordezkariak izango dira, udalarekin koordinazio iraunkorra izango dutelarik.
- ⌘ Merienda eta bestelako jakiak jolas gelatik kanpo jango dira.
- ⌘ Zabor organikoak udaletxe sarreran dagoen ontzian botako ditugu.
- ⌘ Hau oihalak aldatzeko, komuneko alda-lekua erabili eta oihal zikinak udaletxe sarreran, dagokion ontzian botako dira.
- ⌘ Gela hurrengo egunean erabiltzeko txukun utziko dugu.
- ⌘ Giltza galduz gero, lehenbailehen horren berri udaletxean eman beharko da. Giltza berriak suposatzen duen kostua erabiltzailearen gain izango da.
- ⌘ Erabiltzen ez den jostailu bat ekarri nahi bada etxetik, lehenik gazteria-kultura sailera eraman behar da, ez utzi haur txokoan.

## GARBIKETA

- ⌘ Erabiltzaileak arduratu behar dira eguna bukatzean, zegoen bezala uzteaz.
- ⌘ Garbiketa hauek egiteko behar diren garbigarriak udalak jarriko ditu.
- ⌘ Astean behin udaleko garbitzaileak pasako dira haurtxokoa garbitzera, baina **garbitasuna mantentzea erabiltzaileen ardura izango da.**

## MANTENUA / HORNIKUNTZA

- ⌘ Materiala falta bada edo iradokizunen bat badago, lokaleko arbelean idatzi beharko da.
- ⌘ Behar diren konponketak eskaera ofizial bidez egingo dira udaletxean.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



^ Neguan, berogailua arratsaldeko 16:00etatik 18:30etara egongo da martxan, astelehenetik ostiralera. Larunbatean edo igandean beharko balitz, sarrerako botoia sakatu eta berogailua ordubetez martxan egongo da.

*Erabilera okerraren aurrean udalak txartela kendu diezaioke erabiltzaileei.*

## **ESKABIDEA**

Izen-abizenak:	
Helbidea:	
NAN:	
Herria:	
Telefono zenbakia:	
Posta elektronikoa:	

Eskabide hau betez:

1. ITSASONDOKO HAUR ETA GURASO TXOKORAKO SARBIDEA ESKATZEN DUT.
2. ALDI BEREAN, AURREZ AIPATURIKO ARAUAK BETETZEKO KONPROMEZUA HARTZEN DUT.

Itsasondon, \_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ an

**SINADURA**